

## 2016-09-20ko EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko irailaren 20an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira, gai-zerrenda aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa. Jarraian, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak agindutakoa.

## LEHENENGO GAIA

### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (2016-06-28; 2016-07-19).**

Eztabaida hasita, Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du ez dela bi aktetan agertu, baina bi udalbatzetan hitz egin duela, eta akats teknikoa dela hori.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du euskararen aldetik gehienetan ondo dagoela, baina bi pasarte gaizki daudela. Ekaineko aktaren (2016-06-28) 1. gailan (Aurreko aktak onartzea), akats dezente daude (nor, nork...), eta berrikusi beharko litzateke. Gainera, bi paragrafo ez dira ulertzen:

-«Alde batetik Imaz zinegotziak esan zuen: «Etorkinei sarrerak kentzen ari garela eta mahai honetan ba daude korporatiboen familiak kanpotik etorrira, izan ere, etorkinak eta diru-laguntza hauek jaso dutenak ere ziur asko. Eta aktan horrela ez da jaso.»

Honela izan beharko luke: «Alde batetik, Imaz zinegotziak honako hau esan zuen: “Larria da gainera, diru laguntza hau kentzea justifikatzeko, kulpa etorkinei botatzea. Noski etorkin asko dagoela laguntza hauek jasotzen, beraiek direlako baliabide gutxien dituztenak ... Gero ahoa beteko zaigu “mundua nola dagoen”, gaixoak pobreak”, errefuxiatu pobeak” eta horrelako esaldiekin. Baina hartu behar denean erabakia, pobreenei lagundu eta laguntzak erraztu edo gauzak zaildu, zuek zailtzearen aldeko erabakia hartu duzue. Mahai honetan bertan ez ote gaude bat baino gehiago Euskal Herri kanpotik etorritako familietako seme-alabak? Mahai honetan bertan ez ote gaude bat baino gehiago diru laguntza publikoak jasotakoak?.»

-Uztaileko aktan (2016-07-19), bigarren gaiaren (Erein 2016 Programarako Irurako Udalak eskatuko duen diru-laguntza onartzea, hala badagokio) bukaeran paragrafo hau dago:

«Jose Ignacio Imazek erantzun dio bileretara bertaratu zirenek hartu dutela erabakia eta elkarrizketa egin zutela zinegotzien eta teknikarien artean. Galdetu zion egia zen haurtzaindegi berria antzinako mediku-etxean kokatuko zela eta zinegotziak erantzun zion ez zekiela ezer.»

Esaldi hori ez da ulertzen, eta honela jarri beharko litzateke: «Jose Ignacio Imazek erantzun dio kultura-batzorde batera bertaratu zirenek (teknikariek eta zinegotziek) gai horri buruz hitz egin zutela, eta teknikari batek zinegotziari galdetu ziola haurtzaindegi berria antzinako mediku-etxean kokatu behar ote zen, eta zinegotziak erantzun zion ez zekiela ezer.»

Alkateak adierazi du akatsak zuzenduko direla. Ondoren, aipatu diren aktak onartu dira: 5 boto alde (PNV) eta 4 abstentzio (EH Bildu).

Jose Ignacio Imazek adierazi du haren udal-taldeak ezin dituela aktak onartu, ez dakitelako nola geratuko diren.

## **BIGARREN GAIA**

### **ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/136 eta 2016/170 DEKRETUEN BITARTEKOAK.**

Alkateak dekretu hauen berri eman dio udalbatzari: 2016ko 136. zenbakitik 2016ko 170. zenbakira bitartekoak.

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du batzorde guztietan aurkeztu dela, eta hilerriko obrari buruz ez dela informazio gehiegirik eman. Ez zekien obra esleitu zela eta prezioa jaitsi zela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du Bildu udal-taldeak ez diela alkate-dekretuei oniritzirik emango, gauza bera gertatzen baita beste

dekretuekin: kirol-ikastaroak (enpresa batekin kontratua egin da kirol-ikastaro zerbitzua emateko)...

Marta Castrillo zinegotziak erantzun dio gaia batzordean aurkeztu zela, eta enpresa hori kontratu dela arazorik ez edukitzeko, ordezkoez hornitzeko eta zerbitzua beti beteko dela bermatzeko. Halaber, oraingo irakasleak enpresa horretan sartu dira.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du informazio-batzordeak biltzeko arazoak daudela, zinegotziek enpresetan lan egiten dutelako (EAJko kideek, kasu): alde batetik, orduari dagokionez (goizeko lehen orduan bilerak egiten saiatzea, goiz osoa ez galtzeko), eta, beste aldetik, deialdia denbora nahikoarekin bidaltzeari dagokionez (bakoitzak haren lana planifikatzeko). Lehenengo arazoa konpondu da; baina, bigarren gaiari dagokionez, haren udal-taldearen izenean eskatu du batzordearen bileren deialdiak lehenagoa bidaltzea.

Alkateak adierazi du ados dagoela esandakoarekin.

Hori ikusita, udalbatza jakinaren gainean geratu da, EH Bildu udal-taldearen abstentzioarekin.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **EUSKO JAURLARITZAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO ELKARRERAGINTASUN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Lankidetzeta-hitzarmen hau aurkeztu da: Irurako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artekoa, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

Hitzarmen horren xedea da, alde batetik, sinatzaileek ematen dituzten zerbitzu elektronikoen aprobetxamendu erkidea izatea, eta, bestetik, haien artean informazioa trukatzea. Halaber, helburu du herri-administrazioen eskura dauden datuak eta agiriak ez emateko eskubidea gauzatzea.

Hori ikusita, udalbatzak hau erabaki du aho batez:

## **ERABAKIA:**

**LEHENA.-** Aipatu den hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA.-** Ana Jesús Leunda Gurruchaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta helburua betetzeko beharrezkoa den beste edozein izapide egiteko.

## LAUGARREN GAIA

### **SINATZEA, HALA BADAGOKIO, IRURAKO IKASTOLAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, 2016-2017 IKASTURTEAN 2 URTEKO HAURRAK ESKOLARATZEKO.**

Irurako Ikastolak bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu ohi du urtero. Hori dela eta, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Irurako Ikastolarekin, azken urteetan bezala.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du :

## ERABAKIA

Lehena.- Aipatutako 2016/2017 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea arauen arabera, eta Ana Jesús Leunda Gurruchaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztatzea aurkeztea
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

## BOSGARREN GAIA

### **JAKINARAZTEA IRURAKO UDALERRIKO MAHAIEN ERAKETA 2016ko IRAILAREN 25eko EUSKO LEGEBILTZARRAREN HAUTESKUNDEETARAKO.**

Jakinarazi dira Irura udalerriren hauteskunde-mahaiak osatzeko izendatu diren hautesleak, 2016ko irailaren 25eko Eusko Legebiltzarraren hauteskundeetarako.

## SEIGARREN GAIA

### **2016ko IRURAKO JAIEN PROGRAMA ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Kultura Informazio Batzordeak 2016ko ekainaren 29ko bileran onartu zituen San Mielak 2016 herriko jaien egitaraua eta aurrekontua. Aurten, herriko jaiak irailaren 23tik urriaren 1era bitartean ospatuko dira, eta, ondoren, urriaren 9an erretirodunek haien eguna ospatuko dute. Herriko jaien aurrekontua 42.000 eurokoa izango da.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du onartzea.

### **ZAZPIGARREN GAIA**

#### **28 KANALAREN DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honek euskararen erabilera soziala suspertu nahi du. Ildo horretatik, 28 kanala dugu Tolosaldeko euskarazko komunikabidea. Telebista, irratia eta webgunea dira 28 kanalaren euskarriak, eta eduki guztiak euskara hutsean eskaintzen dira.

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.2 artikulua araberak, udalen berezko eskumenak dira, eskumen horretatik eratorritako ahalmen eta funtzioekin batera, haien lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea (...) edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatzeko eta dinamizatzeke burutzen dituzte jardueren finantzaketan laguntzea.

Bestalde, Irura Udalaren 2016ko aurrekontuan 3.000 euroko kreditua berezia dago 28 kanalarentzako partida honetan: 1.0000.481.335.00.00.2016.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

LEHENA.- Onartzea hitzarmen bidez diru-laguntza hori ematea, aipatu den helburuarekin.

BIGARRENA.- Irurako Udaleko alkate den Ana Jesús Leunda Gurruchaga andreari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta helburua betetzeko beharrezkoa den beste edozein izapide egiteko.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN DONOSTIAKO 2. EPAITEGIAREN EPAIA JAKINARAZTEA, IRURAKO UDALEKO DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOARI BURUZKOA, ETA DAGOKION ERABAKIA HARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2016ko irailaren 6an, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak emandako epaiaren berri izan zuen Udalak. Epaiak indargabe utzi du Udalbatzak 2015eko martxoaren 31n hartutako erabakia, Euskal Autonomia Elkartearen Gobernu Ordezkaritzak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren harira. Aipatutako udalbatza-

erabakiaren bidez, 2015eko ekitaldiko diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zen.

Arrazoiak kontu formalak dira: plana ez da hiru urtekoa, ez ditu dagokion legediak edukiari buruz ezarritako eskakizunak betetzen....

Epaiaren kontra, apelazio-errekurtso arrunta jar daiteke 2016ko irailaren 28ra arte, EAeko Auzitegi Nagusian.

EH Bildu taldearen izenean, Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du gai hori oso teknikoa dela eta ez dutela iritzia emateko argudiorik, eta, hortaz, abstenituko direla.

Hori ikusita, eta aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV) eta 4 abstentziorekin (EH Bildu), hau onartu da:

#### ERABAKIA

Aipatu den epaiaren aurkako helegite-errekurtso arruntik ez jartzea.

### **BEDERATZIGARREN GAIA**

#### **GALDE-ESKEAK.-**

Gai hauek jorratu dituzte:

A) Alkateak adierazi du datorren larunbat gauean herriko jaietan kontzertua eskainiko dela San Migel Plazan, eta jende asko etorriko dela. Hortaz, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari baimena eskatu dio hauteskunde-panelak kentzeko, arazorik ez izateko. Batzordeak baimena eman du, eta alkateak gaia aipatu du denak jakinaren gainean egoteko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Nik, idazkari naizen aldetik, bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA